



PROGRAMA ELEANITZAK, ETXEA TEILATUTIK HASIA?

5 urtetik gora dira jada Nafarroan, programa eleanitzek izen desberdinekin esperimentazio garaian darraitena. Hasiera batean dena zen berria, erakargarria eta etorkizunari lotua. STEE-EILASTik hezkuntzak erronka berrien beharra beti duela uste dugu, beti ere hobetu ahal den zerbait bezala ulertzen dugulako. Baina, hona gure galdera: **Frogak, ez hanka ez buru gabe egitea, zilegia eta, are gehiago, debaldekoa al da?**

Zilegia, egia esan, ez da 5 urtez programa esperimental batzuk inongo ebaluazio publikorik kaleratu gabe aurrera eramatea (legeztatze eta curriculum propio gabe, gainera). **Ezta ere garbia programa hauetan lanean ari diren irakasleak, urteetan D eta A ereduetan lanean dirautenen gainetik jarri.** Nahiz eta ingelesa emateko programentzat diru-laguntza handiak bideratu azken urte hauetan, gaur da eguna, prestatutako irakasleriaren falta publikoki aitortu duena Hezkuntza Departamentuak. **Honek berresten du programa hauek abiarazterakoan izan duten plangintza urria eta gauzak azkar eta korrika egin izana.** Zertara dator gauzak arrapaladan egite hori, D ereduaren azken urteetako gorakada geldiarazteko ez bada?

Aurreikuspen exkax hau dela medio ere, jakina da urteetan errepikatzen dela euskaraz ematen diren hainbat espezialitatetan duten jende falta, Haur hezkuntza, Ingelesa edo A ereduko irakasleria kasu. Azken hauen inguruan aipatu behar dugu ere, nola 2007 eta 2009an oposizioak atera zituzten euskara irakasleak sufritzen ari diren mugiezintasuna, Departamentuak lehen hezkuntzara pasatu ahal izateko habilitazioa ez bait die eman nahi, horretarako titulazioa izan arren. **Hori bai, kurtso honen bukaeran, eta programa eleanitzetan dagoen jende falta dela medio, haur eta lehen hezkuntzako habilitazioa lortzeko 'espezialitate berriak eskuratzeko' konbokatoria berezia atera dute, jakina!**

Bestelakoa dugu, ostera, euskarari birziklaia egin nahi duten irakasleen kasua. Irakaskuntza publikoaren kalitatea hobetzeko itunean sinatu eta azken urteotan eskaintzen ari ziren 40 plazaetatik 10 murriztuak izan dira, hainbat euskara ikasle fundamentuzko arrazoirik gabe kanpoan utziz.

Batzuk horrenbeste eta besteok hain gutxi! Eleaniztasuna bai, baina ez edozein eratan, eta hemen ofiziala euskara dela ahaztu gabe!